

Comparsa de Broquel Dantzaris de **RENTERIA** (Guipuzcoa).



ERRENTERIAKO TXISTULARIAK

LEIZ

Arlote samar aurkezturik ikusten ditugu antzinako txistulariak. Bazen ordea gure herrian, txistulari bikaina bezain gizon apain ta egokia. Aurrerakoia izan behar itxura denez; betidaniko txistu doinuez gainera, «El barberillo de Lavapiés», habanera ta mazurkak eskeintzen zituen behintzat, bere erestaldietan. Joxe Antonio Jauregi zeritzan, ta bere seme Juanito ta Mutro danborreroaz taldea osatzen zuen.

Urteak aurrera, ta besteeri bezala agur egiteko garaia iritxi zitzaion. Bainan Kanpion-en ipuian bezala, etzen Erraondoko azken txistularia izan.

Ordurako bazen Erreterian, aipatutako Jauanito Juregik lehen erakusaldiak eman zizkion galtza motxekiko mutikoa: Alejandro Lizaso ain zuzen. Berau zen, Donostiako Eusko Etxean zuten ezpatadantzari talde gorengoaren txistulari. Laister, Hondarribian ospatutako batzaldian ere aurkeztu zen, saria bereganaturik.

Etzuten Erreterriako herrigzonek, inolaz ere txistulari talde gabe gelditu nahi. Ta lehen txistularia aukeratzeko batzaldia antolatu zuten, gorengo epai-mahaia izendaturik. Ta aurkeztu zirenen jardunak entzun ondoren, nor aukeratuko ta Alejandro Lizaso gaztetxoa izendatu zuten txistularien buru.

Bakarrik gelditu zelarik, bere kideko Periko Lizardi bereganatu ta ekinaren ekinez laister trebetu zen. Biekin, Martin Goñi zuten, atabalarik.

Garai hartan, talde osoen batzaldiak sarritan ohi ziren, ta ordurarte txistu, ttuntun ta danborrak egiten zituen bere aita Gilermok, txistu jotzen ikasi zuen berrogei urtetik gora zituanean ta silbotearekin laukotea osatu. Laister ospatu zen Donostiako batzaldira aurkeztu ta bigarren sariarekin herrira itzuli.

Ordurako, Martin danborreroaren seme Ebaristo, Donostiako orkestan jotzen asia zen, ta aitaren ordekotza har zezakean. Hor, hiru gazte. Laugarrena ere laister zuten berekin: Eujenio Errazkin, «Potxolo».

Goizean goizik ekiten zion Alejandrok txistu saioeri. Eskerrak, herri sarreran bizi zela ta inguruko etxean urruti samar izanik, etzuala inor asper arazteko beldurrik. Inulabarreran ohi zituen taldearen saio luzeak, ta 1928gn urtean, Bilboko sariketa iragarri zenean, Tomas Garbizu ereslari ospetsua ta elizako organista On Bernardo Aurkia aholkulari izanik, ondo prestatu ziren.

Eraiki berria zen Arenaleko kioskoan ospatu zen batzaldia. Bertan agertu ziren Gasteiz, Tolosa, Bermeo ta gure txistulariak. Batzuek besteena ez entzuteko, Arriagan egon behar izan zuten aldi luzean lasai, komikiak, TBO-ak ikusi ta irakurtzen azkeneko jo beharrekoak, bere txanda iritxi bitartean.

Etzuten animo aundirik jaso, beren bila etorritakoengandik, aurrekoek zelan jo zuten galdetzean. «Gaztetxoak zarete, —nolaz ez, lauren artean aitona gazte baten urteak osatzen bai zituztenta laister zuek ere beren mailara iritxi ahal izango zarete!»... erantzun zien. Bainan hala ta guzti, patxada galdu gabe, lasai...

Gorosarri—rena zen nahi ta ez, talde bakoitzak erestu beharko zuen doinu berria. Aurrekoeri entzundakoa zuten gogoan bildutako jendeak; baina beste aunditasun bat iritzi zieten oraingoan. Txorien pilpirriok ziruditen dantza soinuak, «ad libitum» jotzeko zuten zati bat. Lehenengo aldiz Goñiren danborrots neurtuekin eman ondoren, bigarrean ixilik geldi ta txistu otsak argiago entzuteko era izan zuten. Tomas Garbizu—ren aholkua beteaz jardun ziren honela, ta ordurarte—koek horrelakorik egin etzutenez, entzuleak urduri ta gogotsuago entzunaz aurkitzen ziren. Azken ekinaldiko eresiak, indartsu ta zoli emanaz bukatu zutenean, berebiziko txalotza eskeini zieten.

Etzen inorentzat, garaileak nortzuk zireneko ezpairik. Epaileak ere, aburu batez honela eritzi zieten, ta Erretereriako Txistulari taldea garaile zela erabaki zuten.

Berebiziko arrakasta izan zuen beren garaipenak, eta egundoko harrera zaratatsuarekin hartu zituen herriak, itzuli zirenean. Omenaldia egitean, Zumardi txikiko kioskoan eskeini zizkien herritarreri doinurik bikainenak.

Arrakastaren berri izan zuten Mexikon ere, ta haruntz joan behar izan zuten. Halaz ere ozpin ttantta izan zuen beren txangoak: presupuesto aundiegia zela ta hango orkestan jotzen zuen atabalariak lagunduko zitelera, ta etxean gelditu zen Goñi.

Itsasontziaren ibilaldi luzean, ohi bezala jarrai zuten, saioak beren kamarotean egiten zituelarik. Txistu otsak entzunik, gero ta gehiago biltzen ziren ezezaguna zuten txistu soinu entzuterera. Ta kontzertu bat emateko eskeak gero ta indartsuagoak ziren... Bainan kapitainarengana aurkeztuaz erestaldia ematea eskeini zitenean, baimena ukatu zien. Bertako orkestinaren galeran zitekeala pentsatuaz edo... ez jakin zergatik.

Axola aundirik gabe, baina ukapena gogoan zutela, ordurarte bezala saioak eginaz jarraitzen zuten, ta pasajeko gizon—emakumeak han ziren kapitainaren urbilean, ukapena ahaztutzea eskatuaz. Etzien pakean uzten, ta azkenik, makurtu ta jo zezatela eskatu zien. Orduan ukatu zena, ta kopet ilunez noski, Alejandro izan zen. Alperrik izan ziren tar—tektzak...

Portura iristeko bezperan jaialdi aundia egin ohi da itsasontzietan. Ta, inork uste etzuen garaian, txistulariak agertu ta jende guztia zoratu zuten.

Itsasontzikoaz gainera, beste gertakizuna ere jakinarazi zuten itzulitakoan. Susmoa izanarren, nortzuk izan ziren asmatu ezinik, doinu guztien partiturak lapurtu zizkieten. Mexiko osoari jakin eragin zieten eratzailleek, era guzietako iragarkien bidez, egunkari, irrati ta argi—iragarkiez... Alperrik!

Iritxi zen kontzertu eguna, ta uri nagusiko antzokirik aundiena leporaino beteta zelarik, han agertu ziren gure txistulariak paper zuria atriletan zutela. Partitxelak zituana, mexiko—

tar atabalaria zen, iritxi bezain laister la lapurretaren aurretik eman bai zizkoten bere partitxelak, ikasten joan zedin... Gertatuaren berri zuten entzuleak, txalotza aundiagoak eskeini zizkieten, buruz jotzen zuten gazteeri...

Pakean geundenok asalaturik
gorrotoz beteta,
Aberria su ta gar ondatzera
etsaia jeiki zan...
LUZEAR—en olerkitik.

Madaleank gogoan, jaiak gertutzen ginelarik, anaien arteko gudu galgarria sortu zen, ta lehenengo erasoan atzera egina—razi bazitzaian ere, herria utzi behar izan genduan. Lehenen—gotakoa izan zen Alejandro, «Itxarkundia» batalloiko «Oarso» ametralladora sailean kapitain izan zena. Baita ere berekin, «Orereta» sailean buruzagi izatera iritxia. Lehenen—goari, Eusko Jaurlearitzak kartsuki eskatu zion Europa zehar txistua joaz zabalkunde a egitera joatea; baina bere erantzuna behin eta berriz, bere tokia mendian zegola izan zen ta bere mutilekin jarraitu zuen.

Legutiori begira ginen Gabonetan, Pagotxikiko lubakietan. Bermio—ko emakumeek bidalitako bisiguak zituzten apartako, esiak egiteko zuten alanbreaz egindako arranbarriletan erreta. Oparo izan zuten, arrain erdi banarekin, ta amaitu ondoren ohi dan bezala, abesteari ekin zioten. Bitartean, beren txistu zolia hartu ta biribilketa alaiarekin aurreko luba—kietara abiatu zen Alejandro. Haietan ere, zoritxar batek honela erabakita anaiak bai genituen... Bertaraino heldu, ta gabonak zoriondu ondoren, joan bezala itzuli zen, zerraldo utziko zuten gure beldurrak bapatean amaiturik. Etzen gau hartan, tiro bat ere entzun... Txistu soinuak alkartu zituen, bi aldetako anaiak...

Hordukoa, pozik aipatzen dugu, bainan geroago... berak amestu zuen bezala, buruan hartutako tiroaz galdu genduen Euskadiko Urretxindorra. Bere lurraldea eskubonbaz aldeztu zutenean, lur gainean etzanda gelditu zen, beti eramaten zuen kaskoa zulatuta.

Errazkin silbotea ere zauritua izan zen. Espetxean sei urte luzeak egin ondoren, ezkondu ta laister hil zen, orduko bala bihotz inguruan zuelarik...

Lizardik eraberritu zuen bien paltan, txistulari talde berria. Ta, lehenengo bidetik jarraituaz, orain urte birarte txistuz alaitu zuen Erretereria. Hil zitzaigunean, garbi erakutsi zuen herriak, bereganako maitasuna.

Goñi dugu oraindik bizi den bakarra. Berari zor diogu. Batzokian ipinia den ta eskeini digun laukotearen argazkia... Urte luzeetarako bizia opa diogula esan beharrik ez.

Hona, garai hartan arrakasta ozentsua lortu zutenenganako oroitzapena. Erretereriaren izena edonun ezagutarazi zuten, baina grauko gazteak ez dute beren berririk. Gudatean ibili ta betirako galdu ez bagenituen, beren omena jasoko zuten ezpairik gabe. Bainan zapaldu ginduztenen mendean ezin ba oherrezko gogorapenik izan.

Ez ote dute merezi, gaurko erreteriarren oroipen eskertua, dugun askatasun apurra lortzearen beren biziak jokatu zituztenak?... Ez ote litzake egoki, Musikaren Plaza bikaina eraikia izan denean, bertara jotzen duan kaleren bati Txistulari Taldearen izena ematea?...

